

Ekaitza dator...

XAN KOSKARAT



IPAR Euskal Herrian, Donibane Garazin kokatzen ziren, bai eskuineko eta bai ezkerreko frantses alderdietako ordezkari ezagunenak. Bata Mixel

INCHAUSPE, R.P.R.-eko deputatua eta bestea Frantxua *Maitia*, alderdi zozialistaren departamenduko lehen idazkaria ditugu ala ginituen (bakotzak hauta dezala...). Lehen ofizioz bankeroa eta deputatu dugu, bigarrena frantses irakaslea. Mixel-ek bere inguruan sare bat muntatua zuen, herri hautesiak mutil bilakazarera saiatzen zelarik, mutil eta eskale. Frantxuak, gazteago izanez, jaunotasun alorrean, erroak ez zituen oraindik finkatuak. Puntu bakar batean biak ados ziren, biek abertzaleen herria zeukaten.

Biek frantseskeria dute lagundu, ikastolei oldartzen zuelarik. Biek plangintza ekonomiko orokor bat baztertu dute, betiko turismakeria lagundu behar zela gorapitzaren zutelarik. Biek, euskaldunei, euskal izaitza ukatu diete. Hots, biek, ipar euskal herriko barnealdean berpizarratzeko ordea, leher egitera utzi dute.

Biek ekaitza gogor bat jasan izan dute. Azken hauteskundeetan, lehen aldikotz, lehen itzulian, *Inchauspe* gehiengo ez zuen lortzen, Frantxua *Maitia* erraka zilorat zolarik. Hobenduna. Koxe Larre, hautagai abertzalea zen, herri proiektu baten inguruan, 10etarik 30 boz biltzen zituela.

Ondorioak berahala agertu zauzkigu. Frantxua *Maitia*, erretretan sartu ote dea? Ez dugu gehiago ez ikusten eta ez entzuten. Michel *Inchauspe* aldiz, Garaziko Sindikateko lehen-dakaritza utzi du bere jokamoldea onartua ez zelako. Lehen aldikotz, Sindikatakt artzain-laborari bat dauka buru eta ez bankero bat.

Gauzak emeki baldin badaoz ere, ez ote gira bide onean? Geroak erranen.

Nihil Novum

TXILLARDEGI



BALTIKOKO

Latvia (Letonia) eta Eesti (Estonia) errepubliketako egoera, gero eta zailagoa da; gero eta leherkorragoa; eguneroko prentsak nazio-problematika hone-

taz ia-ia deusik iragazten ez badu ere. Suomi-ren ahaidet hurbil den bigarrenean, batez ere, Ekainaren 20an (hemendik aste pare batera, bai) amaituko den *ultimauna* dago airden. Egun horretarako Sovietar Armadak Paldiskiko basea utzia ez badu, estoniar 'berdeek' okupatu egingo dutela iragarri dute, aldez aurretik; eta ekintza horren prestakuntzan dihardute egun hauetan.

Mehatxu hau ez da inolako hitzontzikeria. Joan den Maiatzaren 17an, 2.500 estoniar 'berde' hurbildu ziren txirringatan Paldiski-ko base horretara; eta oso larruine gaitzak gertatu ziren paraje haietan; errusiarrak 'inbasio-arriskuaz' mintzo baitira, eta basoko agintaria den Olkhovikov jeneralak, estoniarren jokabide 'zibilizatugabe' hauek gaitzetsi baititu ozenki. «Atzera oraintxe —enizan zuten ekologistek— ala tiratu egingo dugul!».

Estoniarrek orain mungu guztiok ekologisten laguntza ekatu dute, 'Greenpeace' eta guzti. Baina giroa bero-bero dago bestetarik ere.

Tentsio handia sortu da Eesti-ko Osasun-Zerbitzuetan, une berean. Tallingo-ospitaleetan (erdia errusiarrak Eestiko hiruburu horretan), zazpi medikutatik batek ez omen daki estonieraz... Jasanezina omen zaie estoniarrei! Oso sendagile gutxiak erakusten omen du estonieraz ikasteko gogorik: «Estonieraz ikasten denbora alferrik galdu baino —diate— hobe dugu medikuntza bera landu... Han ere 'imperio' egon baita nagusia aspaldi honetan.

Estoniar gaisoek, horrela, % 36 kasotan, «estonieraz mintzatu ezina» salatu dute. Eta datorren urtetik aurrera, Estonian lanegingo duten osagile eta erizain *guztiok* estonierazko gaitasun-agiria lortu beharko dute, horretarako etsamina gaitiduz.

'Giza-eskubideen zapalketa' lotsagarri horiek ikusita, etorrikan organizatzen hasiak dira, bai Eestian bai Latvian.

Niri gogoeta franko datorrik burura. Eta zuri ere bai. Horta, isildu egingo naiz.

HEMEROTEKA

● EL MUNDO

Itxaropenerako elkarrizketa

Bi solaskideek oinak lurrean finkatu behar dituzte. Gauza da nola atera Euskadi dagoen nahas-mahas horretatik. Eta garbi dago ez EAJk ez HBk ezin dutela bakarrik aurreratu Esnaolak aipatu duen beharrezko mapa politiko berriaren osaketan. Bidea garbitu bai, ahal —eta behar— dute. Gero, lehen-bailehen hobe, benetako solaskideek —batetik erakunde armatutik gelditzen denak, bestetik Madrileko Gobernuak— amesgaiztoaren amaiera sina dezaten.

EDITORIALA



ZULET / EL CORREO ESPAÑOL

● EL PAIS

EAJren ikastaroa

Kontaktuak baliagarri izan litezke prestakuntza ikastarogisa planteatzen badira, HB-ko estrategiak munduan gertatzen denaz egunean jartzera

bideratuak. Adibidez, nazionalismo erradikala eta marxismoaren arteko konbinazioa faszikulotan Camboyan esperimentatu zela; edo gaur eguneko euskaldunei sobirantotasunaren gaia baino gutxiago interesatzen zaienik

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Andoingo gaztetxea itxi digute

Lerrootatik, Andoainean herenegun gertatutakoa salatu nahi genuke. Goizeko zortzietan, aurretik inolako abisurik izan gabe, Ertzaintza eta Andoingo Udaltzaingoa laguntzaz, langile talde bat azaldu zen Gaztetxe inguruan, eta bertako ate eta lehiak murriz itxi zizkiguten. Bertan geundenei betarik eman ez zigutenez, gainera, gaztetxea itxteaz gain, barruko musika ekipoa eta beste-lako trasteak bertan geratu dira, oraingoz berreskuratzeko aukerarik ez dugula.

Gaztetxea itxi duten bezala itxteko, Udalaren aitzakia, aurreko legealdian Udalak gaztetxeari inposaturiko arauak ez omen ditugula bete da. Hartutako neurritz kanpoko erabakia, beraz, gaztetxe inguruko zenbait bizilagunek egingo duten ondorioa omen da. Inposaturiko arau horien arabera, gure ekintzen ordutegia mugatu beharra zegoen, lanegunetan kontzertuak gaueko hamarretarako eta jai egunetan hamaiketarako bukatu behar genituelarik. Arau horiek gure aldetik, azken hilabeteotan, bete egin dira; baina, hala ere, gaztetxea itxi

egin digute. Guzti hau kontuan harturik, honako hau salatu nahi dugu:

— Urte luzetan aktibitate leku bezala lanean ihardundako gaztetxea itxi egin digutela.

— Gazteen bilduleku izango diren lokalen eskasi erabatekoa, eta Udaltxeak arazo hau bideratzeko azalduetako borondate eskasa.

— Euskal Herriko gaztetxeak eta gune autogestionatuak azken bolada honetan inestruizioetatik jasaten ari diren eraso lotsagarria.

— Azkenik, Udalteak gurekiko azalduetako joera intolerante eta autoritarioa. Ez gaituzte gaztetxerik gabe utziko!

ANDOINGO GAZTETXEA

Ibilaldien inguruko burutazioak

Gaurko egunean Ibilaldian izan osten, zeinbat burutazio otu zait. Denon ahotan berba bat, igaro den greba egunean legez: arrakastasua. Baina izan gaitzen objektiboak. Honelako euskal herri ekintzak, ez al dira euskaldunen-

tzako eginiko festak? Zer dela eta, orduan, horrenbeste erdara honelako euskal jai batean? Zeharo penagarria da betean, jendea hain gutxitan euskaraz aritzea. Izan ere, hainbat eta hainbat haur gaztekeraz berba egiten ikusi dut. Ez dut ezkorra izan gura baina hori ez da alai egoteko modukoa, kezkatuta baizik. Guzti honek euskaltzetasuna behera doala ematen du eta zuzpertz egin behar dugula, nik uste.

Beste aldetik, euskaldunok (euskara dakigunok, alegia) euskarak etsai asko duela badakigu, Buesa eta Mosquera pertsoniak bezalako jendea, esaterako. Hala ere, gure artean badago etsai pasiboa, hots, euskaraz aritzea atsegin egingo omen lukeena baina «no tengo tiempo», «es muy difícil para mí», edo «eso para los jóvenes» esan ohi duena. Eta bere burua abertzaleztat jotzen du. Ez gaitzen engainatu. Jende honek ezin du abertzalea izan euskara jakin eta erabili-berik. Beraz, hitz egin dezagun euskaraz jende honek zeezer gurea dela ikus dezan.

ALBERTO MARTINEZ

Bilbo


GAIA JARRITA



AEKAnpada

Klasetik kanpo aukera gutxi ikasi dena lantzeko, sari gabilza noraezean ardi galduen antzeko, jai jarri da euskaldun asko zahar nahiz berri biltzeko, titulu hori berez ez bait da arrazoia tristetzeko.

JON INAKI IZARZELAIA



Batzorde Patekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkariek: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentes: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEHARRIETA, INAKI URIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitateak: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tallerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 / Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakitua, 16. 1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Arabak: San Antonio, 20-1. Lezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galtupertia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11